




IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK


HAURRAK EUSKALDUNTZEN
BIDEOAREN BIDEZ

Lourdes Iriondo

.361:372.3




GLOTODIDAKTIKA-LANAK 10



Egilea: Lurdes Iriondo
Marraskilaria: Antton Dueso
© Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Lehendakaritza Saila
Eusko Jaurlaritza
I.S.B.N.: 84-7542-023-0
Legezko gordailua: BI 546-1983
Lehenengo Argitaraldia: 1983ko Apirila
Edit. Elexpuru, S.A.L. - Zamudio-Bizkaia

Lurdes Iriondo

IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK
HAURRAK EUSKALDUNTZEN
BIDEOAREN BIDEZ



Gasteiz 1983

AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
AURKEZPENA	7
AURPEGIAREN JOLASA (2 - 17)	9
ELKARREKIN JOLASTUZ (2 - 18)	17
SAGUTXO KASKARINA (2 - 22)	23
TXORIA ETA PINUA (2 - 23)	31
ZUHAITZ TXIKIA (3 - 31)	39
HAMELINGO XIRULARIA (3 - 38)	45
TXORIMALOA (3 - 39)	51
OTSOA ETA HIRU TXERRIKUMEAK (4 - 41)	57
OINEN JOLASA (4 - 42)	65
OTSOA ETA ZAZPI ANTXUMEAK (4 - 43)	73
PANPIN DENDA (4 - 45)	81
OTSOA ETA TXANOGORRITXU (6 - 60)	87
BI ANAIK ETA SORGINAK (6 - 66)	95

OHARRA: Izenburuen ondoan datorren zenbaki pareak pelikula zenbatgarren zintan dagoen eta zer zenbaki duen adierazten du. Esate baterako "Aurpegiaren jolasa" 2. zintan dago eta 17. pelikula da.

AURKEZPENA

Gaur egungo entzun-ikus teknikak euskararen alde eta haren zerbitzuan ipini direla ez dago dudarik. Lan eremu zabalak eskaintzen zaizkigu ondoko urteetan telebista, irrati, kazetaritza eta abarretan. Hezkuntza formalak ere badu bere garrantzi ukaezina mundu berri honetan eta ekarpen bolumen dexteoa asimilatzeko gaitasuna dauka gainera. Bide hori urratzen hasi da Hezkuntza Sailak, eta konkretuan Programazio Zuzendaritzak, eragindako «HAURRAK EUSKALDUNTZEN BIDEOAREN BIDEZ» izeneko pelikula mordoska.

Pelikula horien gidoi sorta batzuk argitaratu dira jadanik, hain zuzen Kubiltxo taldea eta Itxaropena M. de Lezearen "Haurrak euskalduntzen giñolaren bidez" izeneko bi liburu, non giñola klasean egiteko bide praktikoak ere aipatzen diren.

Oraingoan Lurdes Iriondo eta bere taldeari tokatu zaie txanda. Haiek grabatutako ipuinen gidoiak ematen ditugu liburu honetan.

Bideo-zintetan ipuin hauek ez dira denak jarraian ematen. Beste egileenekin tartekatzen dira, honela azken produktoa haurrentzat atseginago izan dadin. Gidoiak liburu batean argitaratzeko garaian, ordea, egile bakoitzak bere material guztiak bildu eta egokien iruditu zaion moduan taxutzeko aukera izan du.

Euskara ikasten ari diren haurrengan pentsaturik eginak dira gidoiak, euskara simple eta ulerterrazez. Gertakizunen haria ere guztiz da samurra eta gehienetan hurrek berek lehendik ezaguna.

Ezaugarri horiek guztiek eta imagina mugikorak duen erakargarritasunak eramango dute haurra ustegabe euskararen mundura, eta txikitatik integratu ahal izango du gure herriko ondare nagusia bere esperientzian, oroimenean, sentimenduetan.

Ez da bere lehen hizkuntza izango, ez du agian hartan duen hitz erraztasuna sekulan euskaraz iritsiko, baina haurretan atseginez eta maitasunez hartu badu ezin izango du inoiz bere nortasunetik berezi.

Saio hauek hori dute xede, euskara Euskal Herriko haurren aho-bihotzetan txertatzea txiki-txikitatik. Lagun ezazue zuek irakasleok, gurasook, landare horrek hain beharrezko duen esku zaintzaile eta laguntzailea ere eskaintzen.

HEZKUNTZA SAILEKO
EUSKARA ZERBITZUA

PAI LASOEN JOLASAK

aurpegiaren
jolasa



AURPEGIAREN JOLASA

Xixili: Zer moduz zaudete?

Haurrak: Ongiiii !

Txirrintx: Ongi al zaudete?

Haurrak: Baaaaai !

Txirrintx: Begira, Martxelino, zenbat haur etorri diren !

Martxel: Zertara etorri dira?

Bartolo: Gurekin jolastera.

Martxel: Ui, bai, zenbat ! Hamar gutxienez !

Xixili: Hamar bakarrik? Mila gutxienez !

Txirrintx: Ea, ea, goazen kontatzera.

(Bat, bi, hiru, lau, bost ... UUUUII

Martxel: Eta haur hauek euskaraz ba al dakite?

Bartolo: Horixe baietz !

Xixili: Ikusiko duzu: euskara ulertzen al duzue?

Haurrak: Baaaaaaai !

Txirrintx: Bai? Ulertzen dute !

Martxel: Hain txikiak eta euskara ulertzen dute !

Txirrintx: Kontuz ! Ez dira hain txikiak... Nahiko haundiak dira !

Xixili: Bai? UUUUUUH... Ea, zer zarete: Txikiak ala haundiak?

Haurrak: Haundiak !

Martxel: Baita ni ere ! Ni ere, joan den urtean txiki-txiki-txikia nintzen.
Baina orain haundia naiz. Begira zein haundia naizen !

Bartolo: Eta zertan jolastuko gara?

Xixili: Zelatan ! Zelatan ibiliko gara !.

Martxel: Ez ! Ikusi-makusika !

Txirrintx: Ikusi-Makusika? Buf ! Ergela !

Martxel: Ni ergela? Zu bai, zu bai tontoa !

Txirrintx: Eta Zu? Zu tontoagoa oraindik !

Martxel: (Negarrez) BUAAAAAAAAA !

Xixili: Baina Martxelino, zergatik egiten duzu negar?

Martxel: Tontoa deitu nauelako. Eta ni ez naiz tonto bat. Ni pailazo bat naiz

Txirrintx: Ba ! Tonto bat eta pailazo bat berdinak dira ia.

Martxel: Ez !

Xixili: Bai !

Martxel: Ez !

Bartolo: Bai !

Martxel: EEEEEZETZ !

Denek: Ez?????

Martxel: Ez ! Tontoak itsusi-itsusiak izaten dira; eta pailazoak oso politak.

Denek: BAAAAA !

Martxel: Tontoak itsusi-itsusiak izaten dira, zu bezalakoak...
eta pailazoak oso politak, ni bezalakoak....

Xixili: Ideia bat ! Zergatik ez gara "Aurpegiaren jolasean" jolasten?

Martxel: Hori, Hori !


Txirrintx: Bai ederki. Nik aurpegiaz gauza asko egingo ditut.

Bartolo: Eta nik !

Txirrintx: Eta haur hauek ere bai, ezta?

Xixili: Bai, bai etorri denak. Goazen "Aurpegiaren jolasean" jolastera !
Tira !.

Txirrintx: Aurpegi tristea jarriko dugu. Bat, bi, hiru !



Martxelino: Orain aurpegi alaia.

Bartolo: Eta orain negarrez, ixil-ixilik (*Ixilik negar egiten dute*)

Xixili: Orain negarrez, baina gehiago (*Gogorrago egiten dute negar*)

Txirrintx: Eta orain izugarrizko negarrak (*Oihuka*)

Xixili: Orain txikle bat jango dugu


Martxel: Eta orain helatu bat.

Xixili: Orain gaizto aurpegia jarriko dugu.

Txirrintx: Eta orain logale aurpegia. (*ahozabalka*)

Martxel: Orain itsusiak, zu bezala.

Txirrintx: Eh, eh, geldi ! Orain itsusiak !



Txirrintx: Orain mutur haundi-haundia jarri !

Xixili: Ahoa alde batera !

Txirrintx: Beste aldera !

Bartolo: Barruraka !

Txirrintx: Orain begi bat itxi !

Xixili: Bi begiak, ongi irekiak !

Bartolo: Bi begiak itxiak !

Txirrintx: Zuek zaudete horrela lasai-lasai begiak itxita nik esan arte, eh?

.....

Xixili: Tira, tira, agur esateko, oso politak jarriko gara.

PAILASOEN JOLASAK

elkarrekin
jolastuz



ELKARREKIN JOLASTUZ

Txirrintx: Nere izena Txirrintxintxin
Lau pailazo bihurri gara
Zuekin jolasteko
Urnietatik etorriak txunta, txunta, tturrukuttun

Xixili: Nere izena Xixili da
Lau pailazo eskaldun gara
Euskaraz kantatzen dugu
Euskalerrian bizi bait gara

Martxelino: Nere izena Martxelino....
Katua, Miau miau
Oilarra, Kukurruku...

Bartolo: Beti txorakeriak egiten !

Txirrintx: Bai Gizona ! Gaur ez naiz zurekin jolastuko !

Martxel: Baaai !

Xixili: Ez, oso gaiztoa zara. Gaur ez gara zurekin jolastuko !

Martxel: Ba haur batekin jolastuko naiz. Ale !

Bartolo: Ez dute zurekin jolastu nahiko....

Martxel: Ezetz ?

Bartolo: Ez !

Martxel: Ikusiko duzue: Nerekin jolastu nahi al duzu ?

Haurra: Baaai !

Martxel: Goazen ! (*Dantzatzuz*): Eskuak bildu ta sendo abesten dugu
Ez gaude bakarrik, zeinen jolas polita !
Biok elkarrekin, biok elkarrekin,
Biok elkarrekin, beti jolasten.

Xixili: Oso abesti polita.

Martxel: Nirekin ez !

Txirrintx: Bah ! Zurekin ez dut jolastu nahi.

(*Haurrei*): Nirekin jolastu nahi al duzue?



Txirrintx: Zatozte. Etorri, etorri !

Xixili: Goazen dantzatzera
“Denok elkarrekin, denok elkarrekin
denok elkarrekin, beti jolasten”.

Martxel: Ai, nire hanka ! Ai, nire hanka ! ... zu izan zara !

Txirrintx: ..Ez, ni ez naiz izan !

Txirrintx: Martxelino ! Hori izan da ! Haur hori !

Bartolo: Baaaai?

Xixili: Ez, haurrek ez, Haurrek ez dute gaizki dantzatzen.
eta aski dugu, Martxelino !

Txirrintx: Bai, aski dugu. Tira ! Jantzi berriz zure zapata zahar horiek eta
goazen dantzatzera.

Martxel: (zapatak aldrebek jartzen ditu)



Txirrintx: Ja, ja, ja. Hankak okerrak ditu !

Denak: Hanka oker ! Hanka oker !

.....

Xixili: Tira, tira, Bukatzeko goazen pakean dantza egitera:
“Eskuak bildu ta sendo abesten dugu
ez gaude bakarrik, zeinen jolas polita !
denok elkarrekin, denok elkarrekin,
denok elkarrekin, beti jolasten”.

SAGUTYO KASKARINA



SAGUTXO
KASKARINA

Kontatzailea: Behin batez sagutxo bat bizi zen

Sagua: Bai egun alaia ! Nere etxea garbitzera noa

(kantatu eginten du)

Oooh ! dirua ! norena ote da?

Inor ez da ikusten... Ba neretzat !

Diru horrez zinta polit bat erosiko dut nere isatsean jartzeko.

Zeinen polita egongo naizen ! Ti, ti, ti, ti

Kontatzailea: Sagutxoa dendara joan zen. Eta zinta polit bat erosi zuen
eta isatsean jarri zuen
eta ispilu bat atera zuen.

Sagua: Bai polita nagoela ! Atarian eseriko naiz.

(eseri egiten da)

Sagua: Ez ote da inor etorriko?

Kontatzailea: Zakur haundi bat etorri zen.

Txakurra: UAAUUUU !. Egun on, sagutxo. Ni Tomas txakurra naiz. Nerekin
ezkondu nahi al duzu?

Sagua: Ui, ez, ez, alde, alde hemendik !

(joan egiten da)

Ez ote da inor etorriko?

Kontatzailea: Zerri bat etorri zen.

Zerria: GGGGGGG. Egun on, sagutxo. Ni Joxe zerria naiz. Nerekin ezkondu nahi al duzu?

Sagua: Ui, ez, ez, ez. Alde, alde hemendik !

(joan egiten da)

Ez ote da inor gehiago etorriko?

Kontatzailea: Antxume bat etorri zen.

Antxumea: BEEEE !. Egun on, sagutxo. Ni Patxi antxumea naiz. Nerekin ezkondu nahi al duzu?

Sagua: Ui, ez, ez. Alde, alde hemendik !

(joan egiten da)

Ez ote da inor gehiago etorriko?

Kontatzailea: Beste animalia asko etorri zen:

Tximu bat

Ahate bat

Txori bat

Tigre bat

Kontatzailea: Gero katu bat azaldu zen

Katua: MIAAUUU !. Egun on, sagutxo. Bai polita zarela ! Zure isatsa hain luzea da ! eta zure bigoteak ! eta zure begiak !

Sagua: Oooh, eskerrik asko, katu jauna. Nola duzu izena?

Katua: Nere izena Telexforo da

Sagua: oh, zein izen polita ! Te-lex-fo-ro !

Katua: Ezkonduko al zara nirekin? MIAUUUUUU !

Sagua: Oh, bai, bai, zurekin ezkonduko naiz !

Kontatzailea: Hurrengo egunean ezkondu egin ziren.

.....

(denak kantari)

Zorionak zuri, zorionak zuri

Zorionak, sagutxo

Zorionak beti !

..... *(txaloak)*

Kontatzailea: Gero guztiak beren etxera joan ziren

(musuak, agurrak, etab.)

Katua: Orain bakarrik gaude, etorri, musu bat emango dizut

Sagua: Zer egiten ari zara?

Katua: Etorri, etorri ...

(grrrrr aaaaaiiiiiii)

Txakurra: Arratsalde on !



Katua: Zer nahi duzu, txakur?

Txakurra: Nere sonbreroa... non utzi dut...

(hartzen du)

Agur

Sagua: Tomas Txakurra !!!

Txakurra: Zer nahi duzu?

Sagua: Katuak...katuak jan egin nahi nau !

Txakurra: Ez diot utziko !!! GRRRRRRR !

Katua: Alde hemendik, txakur. Sagu hau nirea da !

Txakurra: Ba orain nirea da, eta nik jango dut !

Katua: Nik jango dut !

Txakurra: Nik !

Sagua: Entzun ! Ideia bat !

Biek: Zer ideia?

Sagua: Katu jauna, zu jarri zaitez hor.
Zu, txakur jauna, hor.
Eta nik hiru kontatuko dizuet
Baina lehenbizi pañuelo hauez begiak estaliko dizkizuet
Gero hiru kontatuko dut.
Zuek pañueloa kendu, eta aurrena harrapatzen nauenak jan egingo
nau.

Katua: Oso ideia ona !

(estaltzen dizkie begiak)

Sagua: Kontatzen hasiko naiz. Bat

(joaten hasten da).

Bi... zaudete hor ergel horiek.
Ni banoa. Ez nauzue harrapatuko ...

Txakurra: Tira ! hiru esan !

Katua: Esan hiru !

.....

Katua: Aspertu naiz. Nik esango dut hiru !
Bat ! Bi ! eta Hiru !

.....


Biak: Sagutxo ! Non zaude?

Sagua: ja, ja, jaaaaaa !

Biak: MMMMMMMMMMMMMMMMM !



**TXORIA
ETA
PIMUA**



TXORIA
ETA
PINUA

Kontatzailea: Behin batez txori polit bat pasiatzera joan zen.

Txoria: Oh, bai eguzki alaia ! Bai polita dela hegan egitea !

Kontatzailea: Eta txoriak oso urrutira hegan egin zuen, eta baso haundi batetara iritsi zen.

Txoria: Zenbat zuhaitz ! ... Baina nondik joango naiz nere habiara?,
Ai,galdu egin naiz ... galdu egin naiz ! (*Negarrez*)

Kontatzailea: Txoria negarrez hasi zen, beldurrez, galdu egin baitzen.
Laister gaua iritsiko zen.

Txoria: Hau beldurra ! Dena ilun dago ! Zuhaitz batetara igoko naiz
gaua pasatzera ...
Gabon, haritza, gaua zure adarretan pasa nahi dut.

Haritza: Nere adarretan? Zergatik?

Txoria: Galdu egin naiz eta ...

Haritza: Ez, ez, alde hemendik !

Txoria: Mesedez, haritza !

Haritza: Alde ! Aldeeee !

.....

Txoria: Gabon, pagoa. Gaua zure adarretan pasa nahi dut.

Pagoa: Nere adarretan? Zergatik?

Txoria: Galdu egin naiz eta ...

Pagoa: Ez, ez, alde hemendik !

Txoria: Mesedez, pagoa !

Pagoa: Alde ! Aldeee !


.....

Txoria: Gabon, intxaur. Gaua zure adarretan pasa nahi dut.

Intxaur: Nere adarretan? Zergatik?

Txoria: Galdu egin naiz eta ...

Intxaur: Ez, ez, alde hemendik !



Txoria: Mesedez intxaur !

Intxaur: Alde, Aldeee !

.....

Txoria: Gabon, lizar. Gaua zure adarretan pasa nahi dut.

Lizarra: Nere adarretan? Zergatik?

Txoria: Galdu egin naiz eta ...

Lizarra: Ez, ez, alde hemendik !

Txoria: Mesedez, lizar !

Lizarra: Alde ! Aldeee !

.....

Txoria: (*Oihuka*) Basoko zuhaitzak ! Galdu egin naiz !...

Zuhaitzak: Aldeee ! Alde hemendik !!!

Txoria: Mesedez ! (*Negar egiten*)

.....

Kontatzailea: Txoria oso triste negarrez ari zen ... Baina basoan pinu bat zegoen. Oso pinu ona zen.

Pinua: Txoria, txori ! Zer duzu ?

Txoria: Oh, pinu ! Gaua zure adarretan pasa nahi dut !

Pinua: Baina nere adarrak ez dira politak ...

Txoria: Berdin zaio !

Pinua: Baina nere adarrak ez dira oso haundiak !

Txoria: Berdin zaio !

Pinua: Etorri orduan. Etorri eta egin hemen zure habia.

Kontatzailea: Eta txoriak habia pinu adarretan egin zuen.

.....

Kontatzailea: Baina ... Egun batez negua etorri zen.

Negua: Negua naiz. Negu beltza. Oso indartsua naiz ! Ja, ja, ja ! Orain zuen hosto guztiak lurrera botako ditut.

Zuhaitzak: Sokorroooooo !

Negua: Ja, ja, ja ... Horrela ! Hostorik gabe ! ... Orain pinua bakarrik falta da.

Txoria: Eh, negu jauna !

Negua: Zer duzu, txori?

Txoria: Pinuaren hostorik ez kendu !



Negua: Zergatik ez?

Txoria: Pinua oso ona da. Bere adarretan habia egiten utzi dit.

Negua: Egia al da hori?

Txoria: Egia da !

Negua: Ongi da. Pinuari ez dizkiot hostoak kenduko, oso ona izan delako.

Pinua: Eskerrik asko, negu jauna !

Negua: Agur, pinu. Agur, txori !

Pinu eta Txoria: Agur, agur, negu jauna !

.....

Zuhaitzak: Eta gu? Eta gu? Hostorik gabe bai gaudela itsusi.

Txoria: Ez negarrik egin. Udaberria laster etorriko da hosto pila batez.

Zuhaitzak: Hosto pila bat guretzat?

Pinua: Bai. Eta oso politak egingo zarete berriz ere.

Zuhaitzak: Hemendik aurrera oso onak izango gara !

ZUHAITZ TXIKIA EDO URTE-GIROAK



ZUHAITZ TXIKIA

Kontatzailea: Behin batez gizon batek zuhaitz bat aldatu zuen. Negua zen.

Gizona: Lasai, zuhaitz. Laister udaberria etorriko da eta...

(txistuka aldegiten du)

Kontatzailea: Eta egun batean udaberria etorri zen.

Udaberria: Udaberria naiz. Esnatu, esnatu, zuhaitz.

Zuhaitza: Bai polita zarela, udaberri !

Udaberria: Tori, zuhaitz, zuretzat nere hosto berriak. Eta nere loreak.
Eta txorientzat habia.

Zuhaitza: Eskerrikasko, udaberri !

Udaberria: Agur, datorren urte arte !

.....


Kontatzailea: Bai polita zegoela zuhaitza !
Gero, beste egun batean, uda etorri zen.

Uda: Uda naiz. Tori, zuhaitz, tori nere fruituak zure adarretan jartzeko.

Zuhaitza: Eskerrik asko, uda !

Uda: Agur, datorren urte arte !

.....



Zuhaitza: Bai polita nagoela orain !

Kontatzailea: Gero, beste egun batean, udazkena etorri zen.

Udazkena: Udazkena naiz. Zure hostoak margotuko ditut.

Zuhaitza: Nere hostoak?

Udazkena: Nik hostoak horiz margotzen ditut.

Zuhaitza: Zertarako?

Udazkena: Haizearekin dantzatzeko. Tori ... Agur, eta datorren urte arte !

Zuhaitza: Bai polita nagoela orain !

Kontatzailea: Baina egun batean negua etorri zen.

Negua: Negua naiz. Negua !

Zuhaitz: Zer duzu hor, negu?

Negua: Euria. Trumoiak. Elurra !!!

Zuhaitza: Oh, bai elur xuria !

Negua: Orain zure hosto denak lurrera botako ditut !

Zuhaitza: Zergatik?

Negua: Neguan ez dagoelako historik. Ekarri ...Elurra ! Elurra !

Zuhaitza: Oh, bai itsusia nagoela historik gabe...
Habiari gabe... Fruiturik gabe... Lorerik gabe...
Eta a ze hotza ! AAA... Hilko naiz... Hotz ... EZZZZ

Kontatzailea: Eta zuhaitza hilda bezala gelditu zen. Baina egun batean berriz udaberria etorri zen.

Udaberria: Udaberria naiz. Esnatu, esnatu, zuhaitz !

Zuhaitza: Ez al naiz hil?

Udaberria: Ez, Zuhaitzek neguan lo egiten duzue. Lo asko, ni berriz etorri arte.

Kontatzailea: Eta udaberriak bere loreak eta bere hostoak eman zizkion.

Kontatzailea: Eta gero uda etorri zen.
Gero Udazkena etorri zen.
Eta horrela beti. Zuhaitzak neguan lo egiten zuen baina gero
udaberrian berriz loratzen zen.
Eta urte-aroek bere inguruan dantza egiten zuten.

HAMELINGO XIRULARIA



HAMELINGO
XIRULARIA

*Bazen behin Hamelin herria.
Hamelingo jendea oso pozik bizi zen.
Baina egun batez arratoiak etorri ziren.
Herri hartan katu bat ere bizi zen.
Gero arratoiak sartu ziren.*

1. arratoia: Bai herri polita ! Hemen geldituko naiz bizitzen

Katua: MIAAAAAA !

1. arratoia: AIIIIII !

2. arratoia: Non dago gure laguna?

3. arratoia: Non zaudeee?

1. arratoia: Katua... katua !

2. arratoia: Katua? Bah !

3. arratoia: Gosez nago !

1. arratoia: Goazen janaria lapurtzera !

*Eta arratoiek janari asko lapurtu zuten.
Eta hurrengo egunean arratoi gehiago etorri zen herrira.
Eta denek janari asko lapurtzen zuten.
Katua erotu egiten zen hainbeste arratoiren atzetik.*

Katua: MIAUUUUUU !

Arratoiak: IIIIIII !

Hamelingo jendea oso haserre zegoen

Gizona: Nere ogia jan dute arratoiek !

Andrea: Eta nere gazta !


Gizona: Eta nere intxaurreak !

Andrea: Eta nere haragia !

Biek: Alkatearengana joango gara !

Alkatea: Zer nahi duzue?

Biek: Arratoiak hil behar dira !



Alkatea: Aguazilla: benenoa, pozoina jarri

Aguazilla: Bai jauna.

1 Arratoia: Bufff, bai usain txarra !

2 Arratoia: Pozoina da !

3 Arratoia: Ez dugu jango !

Aguazilla: Ez ote dute jango?

1 Arratoia: Gazta lapurtzera noa.

2 Arratoia: Eta ni esnea.

3 Arratoia: Eta ni, txokolatea.

Aguazilla: Txikiak, politak, etorri, etorri jatera !

Hirurak: BUUUUUUU !

Gizona: Nere esnea lapurtu dute arratoiek !

Andrea: Eta nere txokolatea.

Biek: Alkatea ! Alkate jauna !

Alkatea: Zer nahi duzue?

Biek: Zerbait egin behar duzu !

Alkatea: Aguazilla: arratoiak hiltzen dituenari sari bat emango diot.

Aguazilla: Bai jauna !

Aguazilla: Baaaandoooooo. Alkatearen partetik
arratoiak hiltzen dituena
bere alabarekin ezkonduko da. Baaaaanndooooo !!!

Bi mago etorri ziren herrira.

Bat: Ni Matachin magoa naiz.

Bi: Ni Tiburtzio magoa naiz.

Bat: Nik arratoi denak hilko ditut.

Bi: Eta nik gehiago.

Alkatea: Ixxo ! Zu, hasi !

Matachin: Alkate jauna, nere ur magikoa egingo dut
Hemendik pixka bat, hortik pixka bat, handik pixka bat.
Nahasten dut... lurrera botatzen dut...
nere hitz magikoak esango ditut
eta arratoi denak hilko dira.
Kataplin kataplon kari kaka karikon

PUMMMMMM !

Arratoiak: ja, ja, jaaaaa !

Matachin: Alkate jauna... barkatu... berriz hasiko naiz:
hemendik pixka bat, hortik pixka bat, handik pixka bat.
Nahasten dut, lurrera botatzen dut, nere hitz magikoak esango
ditut eta arratoi denak hilko dira.
Kataplin kataplon karikaka karikon

PUMMMMMMMM!!!

Alkatea: Gezurti bat zara ! Mago txar bat zara ! Kartzelara !

Alkate: Orain zu !

Xirularia: Begira xirula hau. Jotzen dudanean, denek dantza egiten dute.

Alkatea: Hasi !

Xirularia: Musika !

Alkate: Aski ! Aski ! Bufff !

Xirulariak: Gehiago jotzen badut, arratoi denak nere atzetik etorriko dira
dantzan. Eta ibaira joango gara. Eta han ito egingo dira.

Alkatea: Oso ideia ona ! Jo ezazu xirula !

Xirularia: Ongi dago.

Aguazilla: Alkate jauna ! Alkate jauna ! Arratoi denak ibaian ito dira !

Xirularia: Denak ito egin dira.

Alkate: Zorionak. Oso xirulari ona zara.

Xirularia: Orain zure alabarekin ezkonduko naiz.

Alkatea: Ez, ez ! Oso itsusia zara ! Aguazilla diru asko emaiozu.

Xirularia: Ezkonduko gara.

Alkatea: Ezetz !

Xirularia: Ba orain ikusiko duzue ! Zuen haurrak ibaian hilko dira.

Musika

Xirulariak: Zuen haur denak ibaira eramango ditut eta han hilko dira Ja,
ja, jaaaaa !

Musika

Gizona: Nere semea ! AIIIIII ! AIIIIII !

Andrea: Nere txikia ! AAAAAAA, etorri !

Alkatea: Alaba ! Etorri, Etorri !

Gizona: Ai, nere semea ! Ibaian hilko da.

Andrea: Eta nerea ! Etorri, mesedez !

Alkatea: Alabaaaaaaa !
Xirulariiii ez xirula jo ! Nere alabarekin ezkonduko zarelaaa !

(Txaloak)

Alkatea: Honekin ezkondu nahi al duzu ?

Alaba: Baaai

*Hurrengo egunean ezkondu ziren. Tiburtziok, gero, musika jo zuen.
Eta denak oso pozik dantza egin zuten. Eta oso zoriontsu bizi izan ziren beti.*



TYÖRIIHALOA



TXORIMALOA

Behin batez baratza bat zen. Eta baratzan zuhaitz asko zegoen, frutaz beterik. Txoriak etortzen ziren fruta jatera.

Txoriak: Zuhaitzak, gosez gaude !

Zuhaitzak: Jan ezazue gure fruta.

Txoriak: Eskerrik asko.

Baina etxeakoandrea etorri zen.

Etxekoandrea: Txori madarikatuok ! Alde hemendik ! Alde hemendik !
Alde ! Ospaaa !
Badakit. Txorimalo bat egingo dut: bi makila, soka, belarra,
sudurra...

Eta horrela etxeakoandreak txorimalo haundi bat egin zuen.

Etxekoandrea: Baratzaren erdian egongo zara, eta txoriak etortzen badira,
bidali hemendik. Gero arte.

1. txoria: Fiuuuuuuuuuuuuuuuuuuu !

1. txoria: Gizon bat !

2. txoria: Gaizto aurpegia du !

3. txoria: Hau beldurra !

Txorimaloa: Eeeh ! Ez beldurtu !

1. txoria: Nor zara zu ?

Txorimaloa: Txorimalo bat.

2. txoria: Gaiztoa al zara?

Txorimaloa: Ez. Zuen laguna izan nahi dut.

3. txoria: Fruta jaten uzten diguzu?

Txorimaloa: Zuhaitzei, eskatu.

Txoriek: Zuhaitzak, gosez gaude.

Zuhaitzek: Jan ezazue gure frutaaa !

Txoriek: Eskerrik asko.

*Txoriek fruta asko jan zuten. Gero beren habietara joan ziren,
laister gaua izango zen eta.*

Txorimaloa oso pozik zegoen.

Hurrengo egunean etxekoandrea etorri zen.

Etxekoandrea: Nere fruta !!! Berriz txoriek nere fruta jan dute !
Txorimalo, ergel bat zara ! Ez duzu ezertarako balio !
Erre egingo zaitut !



Etxekoandrea, oso haserre, etxera joan zen pospoloen bila txorimaloa erretzeko. Eta bitartean mutil bat etorri zen lapurtzera.

Mutila: Etxekoandrea ez dago. Fruta pilo bat lapurtuko dut !

Txorimaloa: Uuuuuuuuuuuuuuuuu !!!

Mutila: Sokorrooo ! Fantasma bat ! Sokorroooooo !



Etxekoandrea: Zer gertatzen da hemen?

Txorimaloa: Lapur bat zen.

Etxekoandrea: Nork uxatu du?

Txorimaloa: Nik.

Etxekoandrea: Egia da?, txorimalo. Oso ausarta zara. Ez zaitut erreko.

Txorimaloa: Txoriei deituko diegu?

Etxekoandrea: Bai, bai.

Txorimaloa: Txoriak !, Txoriak !

Etxekoandrea: Txoriak, etorri lasai ! Txorimaloa gure laguna da.
Hemendik aurrera zuhaitz hauetan biziko zarete.

Eta geroztik oso zoriontsu bizi izan ziren.



**OTSOA
ETA
HIRU
TXERRIKUMEAK**

OTSOA
ETA
HIRU TXERRIKUMEAK

Behin batez hiru txerrikume bizi ziren.

Bat: luuupi ! Ni Isats-motx naiz.

Bi: leepa ! Ni Mutur-gorri naiz.

Hiru: luufa ! Ni Zerrikito naiz.

“Zerrikumeak, zerrikumeak, zerrikumeak gara gu
egiten dugu, egiten dugu kurrin kurrin kurrin”

Egun batez, asko ibili ondoren, baso batetara iritsi ziren.

Bat: Bai baso polita !

Bi: Asko gustatzen zait.

Hiru: Baso honetan egingo ditugu gure etxeak?

Bat eta bi: Bai, bai. Goazen hiru etxe egitera.

Isats -motx oso alferra zen eta bere etxea lastoarekin egin zuen.

Bat: Ja, ja, ja. Ez naiz ezer nekatu, ja, ja, jaaaaa !

Motur-gorri oso alferra zen eta bere etxea ardaskekin egin zuen

Bi: Ez naiz ezer nekatu, ja, ja, jaaaaa !

Zerrikito oso langilea zen eta bere etxea dena harrizkoa egin zuen.

Hiru: Bufff, hau nekea !

Bat: Ja, ja, ja, gu ez gara nekatu.

Hiru: Baina nere etxea oso sendoa da.

Bi: Bah, ergel bat zara !

Bat: Goazen jolastera.

“Korro txirrin bolo zein polita den:
hanka bat, beste bat, esku bat, beste bat
belarri bat, beste bat, begi bat, beste bat
burua, muturra eta isatsa”.

Bat: nere etxera noa, lo egitera.

Bi: Ni ere bai.

Hiru: Baita ni ere.



Baina baso hartan otso bat bizi zen. Beti gosez zegoen. Otsoa zaharra eta tontoa zen.

Otsoa: AUUUUUUUUU. Otsoa naiz. Otso gaiztoa. Otso beltza.
Nere izena Benito da. AUUUUUUU. Hiru txerrikumeak lotan daude.
Hiru txerri horiek jango ditut.

Otsoa: Tan, tan, tan.

Bat: Nor da?

Otsoa: Otsoa naiz. Benito otsoa.

Bat: Zer nahi duzu?

Otsoa: Atera hortik !

Bat: Ez !

Otsoa: Ateratzeko hortik !

Bat: Ezetz !

Otsoa: Etxea botako dizut ba !

Bat: Bota ! Bota !

Otsoa: FUUUUUUUUU ! FUUUUUUUUU ! FUUUUUUUUUUUUUU !

Bat: Laguntza, laguntza, Matur-gorri !

Otsoa: Tan, tan, tan.

Bi: Nor da?

Otsoa: Otsoa naiz. Benito otsoa.

Bi: Zer nahi duzu?

Otsoa: Atera hortik !

Bi: Ez !

Otsoa: Ateratzeko hortik !

Bi: Ezetz !

Otsoa: Txabola botako dizut ba !

Bi: Bota ! Bota !

Otsoa: FUUUUUUU ! FUUUUUUUUU ! FUUUUUUUUUUUU !

Bat eta bi: Laguntza, laguntza, Zerrikitoooo !

Isasts-motx eta Mutur-gorri Zerrikitoren harrizko etxera joan ziren laguntza eske.

Otsoa: UFFFF, hau nekea ! Tan, tan, tan !

Hiru: Nor da?

Otsoa: Otsoa naiz. Benito otsoa.

Hiru: Zer nahi duzu?

Otsoa: Atera hortik !

Hiru: Ez !

Otsoa: Ateratzeko hortik !

Hiru: Ezetz !

Otsoa: Etxea botako dizut ba !

Hiru: Bota ! Bota !

Otsoa: FUUUUUUU ! FUUUUUUUUUU ! FUUUUUUUUUUUUUUUUU !
Buf, bai etxe sendoa !
Ah, tranpa bat asmatuko dut.
Laguntzaaaa laguntzaaaaa !

Hirurak: Nor da?

Otsoa: Txerri txiki bat naiz. Etorri neri laguntzera !

Hirurak: Zu otsoa zara !

Otsoa: Ez, ez. Ni txerri txiki bat naiz. Etorri neri laguntzera !

Bat: Otsoa da !

Bi: Zer egingo dugu?

Hiru: Badakit ! Zartagi batean olio jarriko dugu. Gero butanoan berotu eta bero bero dagonean, zas ! Otsoari gainean botako diogu.

Bat eta Bi: Hori, Hori !

Otsoa: Jo, jo, jo ... orain etorriko dira, eta orduan, mmmmmmm,
bai ongi egongo direla hiru zerri tonto horiek nere sabelean,
je, je, je.

Bat: Olioa bero bero dago.

Bi: Deitu otsoari !

Hiru: Etorri, txerrikume !

Otsoa: Zer nahi duzue?

Hirurak: Tori !!!



Otsoa: AAAAAAIIIIIIII !

Hirurak: Ja, ja, jaaaaa !

Bat: Eskerrik asko, Zerrikito.

Bi: Zure etxea oso sendoa da.

Hiru: Gelditu nerekin bizitzen.

Bat eta Bi: Hemendik aurrera ez gara alferrak izango !

“Zerrikumeak, zerrikumeak, zerrikumeak gara gu egiten dugu, egiten dugu kurrin kurrin kurrin”.

PAIVISOEN JOLASAK

oinen
jolasa



OINEN JOLASA

Martxelino: Zer egiten duzu hemen bakarrik?

Txirrintx: Aspertuta nago.

Martxelino: Goazen hurrekin jolastera.

Txirrintx: Gaur haurrak ikastolan daude.

Martxelino: Ah !

Bartolo: Zer egiten duzue hemen bakarrik?

Martxelino: Aspertuta gaude.

Bartolo: Ah !

Xixili: Zer egiten duzue hemen bakarrik?

Bartolo: Aspertuta gaude.

Xixili: Goazen hurrekin jolastera.

Bartolo: Gaur haurrak ikastolan daude.

Xixili: Ah !

Xixili: Eh ! Nere iloba etxean dago ! Katarroarekin dago ! Deituko diot.

Bartolo: Katarroarekin ez da etorriko.

Txirrintx: Eztulka egongo da. Horrela. Jjjjjjjj !

Martxelino: Eta mukizapiarekin egongo da. Horrela: Ssssssss !

Txirrintx: Eta doministikuka egongo da. Horrela: Attxis !

Bartolo: Ez da etorriko

Xixili: Eeh ! Hemen dago !

Martxelino: Hau gizon puska !

Bartolo: Nola duzu izena?

Haurra: David.

Txirrintx: Eta txakurrak?

Haurra: Elke.

Bartolo: Nola?

Haurra: Elke.

Martxelino: Bai izen arraroa ! Nere txakurrak Pintto du izena.

Xixili: Pintto? abestia bezala: Pintto Pintto gure zakurrá da
Pintto Pintto bere izena du.
Oso beltza da ta ez du kozka egiten
Begi bat ixten du jolastu nahi badu.
Elke Elke gure zakurra dá
Elke Elke bere izena du.

Txirrintx: Zer du hanketan?

Xixili: Berebil batek harrapatu dio. Hanka bat kojo dauka.

Bartolo: Nere aita bezala. Nere aita ere kojo dabil. Horrela.

Martxelino: Eta nere izeba? Nere izeba Kontxi horrela ibiltzen da.

Txirrintx: Eeehhh ! goazen jolastera !

Xixili: Zertan?

Txirrintx: Oinen jolasean.

Bartolo: Oinen jolasean? Nola da?

Txirrintx: Ba, joaten gara denak hemendik hara, bakoitzak oinak modu desberdinetan jarriz.

Martxelino: Nik irabaziko dut !

Xixili: Aurren ! Aurren !

Txirrintx: Bigarren !

Martxelino: Hirugarren !

Bartolo: Azken !

Xixili: Eta haurra?

Martxelino: Jarri, jarri nere atzean.


Txirrintx: Utzi, utzi txakurra lurrean

Xixili: Baina pailazoz jantzita... Etorri...
Lehendabizi sudurra... Orain sonbreroa ...
Bai polita zaudela ! Hastera noa: Oh, haur gehiago !

Martxelino: Ikastolatik ihes egin duzue?

Xixili: Ikastola bukatu da.

Txirrintx: Tira, jarri zuek ere gurekin.



Xixili: Tori, tori zuek ere: sudurra... sonbreroa...
hastera noa: hanka punttetan. Ale !

Txirrintx: Orain ni takoi punttetan.

Martxelino: Eta ni hanka arrastaka. Rassss. Rassssssssss !

Xixili: Oh, futtin eginaz !

Bartolo: Punttak barruraka.

Xixili: Soka-saltoka ! Hanka batekin bakarrik ! Charlot bezala !

Xixili: Eh ! Aaaaah ! Begira !

Bartolo: Fantasma bat !

Martxelino: Sorgin bat !

Xixili: Aaaaaaah !

Txirrintx: Lasai ! Lasai ! Ez da ezer. Beldurtiak ! Hara, ikusten? gelditu
egin da ...

Denak: Baaaai?

Txirrintx: Baaaai. Goazen hartzera, eh?

Xixili: Zuek ez ! Zuek ez !

Txirrintx: Tira... goazen, beldurtiak !

Denak: Aaaaaaah !

Martxelino: Zu ere beldurtia zara !

Txirrintx: Ni beldurtia? Ni beldurtia? Ez jauna. Banoa ! Bat ! Bi ! Hiru !

.....

Denak: Elke !!! ja, ja, jaaaaa !

Txirrintx: Jo, hori beldurra pasa dugu !
Tira, lasaitzeko, goazen denak dantza egitera.



Xixili: Aurren !
Bat, bi, hanka puttetan
bat, bi, takoi punttetan
bat, bi, hanka arrastaka
bat, bi, soka-saltoka
bat, bi, punttak barrura
bat, bi, Charlot bezala
bat, bi, futtin eginaz
bat, bi, denok atzeraka
atzeraka, atzeraka...

Bartolo: Ai, nere ipurdia !

Txirrintx: Tira, dantzazera berriz !

Xixili: Goazen. Bat, bi hanka punttetan bat bi, takoi.....

**OTSOA
ETA
ZAZR
ANTXUMEAK**



OTSOA
ETA
ZAZPI ANTUXUMEAK

Etxe batean ahuntza eta bere zazpi antxumeak bizi ziren.

Ama: Antxumeok, hona ! Lerroan !
Denak al zaudete? Bat, bi eta hiru. Lau, bost eta sei. Eta zazpi.
Oso ongi, entzun, erosketak egitera noa.

Denak: Gu ere bai !

Ama: Ez, zuek etxean gelditu.

Denak: Zergatik?

Ama: Benito otsoa dabil mendian.

Denak: Bah !

Ama: Ez inori ireki aterik eh?

Denak: Lasai, ama. Ez dugu aterik irekiko.

Ama: Etxe barruan jolastu !

Denak: Bai, ama.

Ama: Gero arte ba. Mua, mua, mua !
Agur, antxumeok.

Denak: Agur, ama.

Ama: Aguuuur !

Amak alde egin zuen. Baina zuhaitz baten atzean Benito otsoa zegoen.

Otsoa: Ama joan da. Jo, jo, jooooo
Atzo hiru zerrikitoak ez nituen jan
baina gaur zazpi antxume horiek jango ditut.

Etxe barruan, zazpi antxumeak bakarrik gelditu dira

Denak: Zertan jolastuko gara?

Bat: Korroan?

Denak: Bai, bai

“Txori txiki bat negarrez ari da
txio txioka amari deika”

Otsoa: Tan, tan, tan !

Denak: Nor da?

Otsoa: Zuen ama naiz.

Denak: Zu otsoa zara !

Otsoa: Ni otsoa? Ez, ez, ama naiz.

Denak: Erakutsi zure hanka.

Bat: Gure amak hanka xuria du.

Bi: Eta zuk hanka beltza duzu.

Denak: Alde hemendik, otso !

Otsoak oso haserre aldegin zuen

Otsoa: Antxume nazkagarriak ! Orain ikusiko duzue !
Hemen irina daukat. Irin xuri xuria
Atzaparrak irinetan sartuko ditut, ja, ja, ja
Atzapar xuri xuria, horien amak bezalakoa, jo, jo joooo !

Etxe barruan antxumeak jolasten ari dira

Denak: Pasimisi, pasimisa, trena da, trena da, tra tra tra.

Otsoa: Tan, tan, tan !

Denak: Atea da !

Otsoa: Tan, tan, tan !

Denak: Nor da?

Otsoa: Zuen ama naiz.

Denak: Zu otsoa zara.

Otsoa: Ni otsoa? Ez, ez, ama naiz.


Denak: Erakutsi zure hanka.

Bat: Hanka zuria dui

Bi: Gure ama da !

Denak: Goazen irikitzera !

Otsoa: AJJJJJJJJJ !



Denak: AIIIIIIII !

Otsoa: Hiru jan ditut... non daude besteak? Ahhh, Hor daude !

Otsoa: Sei jan ditut. Bat falta da. Ah, hor dago !

Otsoa: Zaazzpi ! Bai antxume goxoak !
Orain nere sabelean zaudete, jo, jo, joooo
Aah, siesta bat egingo dut.
Jjjjzzzzzzz jjjjzzzzzzz jjjjzzzzzzzzz !

Gero ama etorri zen.

Ama: Antxumeokkkk ! antxumeooooook ! antxumeok !

Denak: Beeeeeeee !

Ama: Non zaudete?

Denak: O-tsoa-ren sa-be-lean !

Ama: AAAAAAI. Hemen zaudete, antxumeok?

Denak: Baaaaiii.

Ama: Lasai. Orain aterako zaituztet.

.....zzzzzzz zzzzzz

Ama: Hemen zaudete zazpiak?

Denak: Bai.

Ama: Harri horiek sartuko dizkiot sabelean. Ekarri ! Bixi, bixi !
Beste bat. Beste bat.
Orain sabela josiko diot.
Kendu, kendu !

.....

Eta amak sabela josi zion jostorratz eta hari batekin.

Ama: Etorri gordetzera ! Aguro ! Azkar, azkar !

Antxumeak zelatan zeuden

Otsoa: UFFFF. Ai, aaai
Hau tripako mina ! Antxume hauek bai astunak direla !
Egarriz nago... Hutsa, hutsa !
AAAI, bai antxume astunak ! Tripako mina !
Hau egarria ! Errekara noa, ura edatera !
AAAAI, AAAAIIIIII, AAAAIIIIII !

Ama: Badoa ! Badoa ! Errekara doa !

Otsoa: AAAAI, hau egarria !
Erreka non dago? AAAAI, nere sabela !
Hilko naiz. Ura ! Uraaaa !
Uraaaaaaaaaa !

Denak: Ja, ja, ja, jaaaaaaaaa !



RAMPAN DENDA



PANPIN-DENDA

Behin batez panpin-denda bat zen. Panpina guztiak kuerda emanda ibiltzen ziren. Dendako jabeak Tomaxa zuen izena.

Tomaxa: “Basatxoritxu mokoluzea ez joan zerura bila.
aingeru txuri behar ezker horra hor nere mutila”.

Tomasak asko maite zituen bere panpinak.

Tomaxa: Dantzatu nahi al duzue? Kuerda emango dizuet.

Zuri.

Orain zuri.

Eta zuei.

Orain denei.

Eta orain geldi geldirik, lo egitera bihar arte.

*Gaua etorri zen. Tomaxa bere logelara joan zen lo egitera, eta panpinak baka-
rrik gelditu ziren.*

Gaueko bederatziak ziren.

Panpinek begiak itxi zituzten.

Baina gaueko hamabiak jo zuten.

Eta leihotik sorgin bat eta gizaundi bat sartu ziren.

Gizaundi: Nire izena Ziripot da eta gizaundi haundi haundi haundi bat naiz ni.

Sorgina: Nire izena Ipurdigorri. Sorgin gaizto gaizto gaizto ta zikina naiz ni.
Orain jostailu guztiak lapurtuko ditut.

Gizaundi: Lapurtu? Ez, ez, nik jostailu guztiak puskatuko ditut.

Sorgina: Puskatu? Ez, ez, lapurtuko ditut.

Gizaundi: Puskatuko ditut !

Sorgina: Lapurtu, Ziripot nazkagarria !

Gizaundi: Puskatu, atso zikina !

.....

Sorgina: Je, je, je, jeeee.

Orain, txorabiatuta dagoen bitartean jostailu guztiak lapurtzera noa ...

Eh, Tomaxa dator ! Izkutatuko naiz !



Tomaxa: Nor dabil hemen? ...Oh, Gizaundi bat lurrean ! Hilda ote dago?

Sorgina: Har ezan hori ! Je, je, jeeee. Txorabiatuta dagoen bitartean benenoa emango diot. Benenoa...


Je, je, je, Tomaxa hilko dut !!!

Panpina: Tomaxa gure laguna da !!! Goazen !

Sorgina: Sokorrooooo. Aaaaaaaaahhh !

Tomaxa: Oh ! Panpinak mugitzen ari dira !
Eskerrik asko, panpinak. Eskerrik asko. Ez zaituztet behin ere
salduko. Goazen denok dantzatzera.

Eta geroztik Tomaxa eta panpinak oso pozik bizi izan ziren.



OTSOA eta TXANOGORRITXU



OTSOA
ETA
TXANOGORRITXU

Kontatzailea: Gaur Benito otsoa mendian dabil.

Otsoa: “Ni otsoa, ni otsoa, ni otsoa naiz, otso gaiztoa...”
Auuuuuuu !!
Basora noa. Atzo hiru txerrikumeak ez nituen jan.
Gaur goizean zazpi antxumeak ez ditut jan.
Hau gosea !
Nere sabela hutsik dago.
Auuuuuuu !!
Uiii !! Ehiztari bat eskopeta batekin.
Ospa, Benito !

Kontatzailea: Etxe batean Txanogorritxu bizi zen bere amarekin.

Ahotsa: Txanogorritxuuu !!

Txanogorritxuk keinu bat egiten du.

Ama: Txanogorritxu !

Txano: Zer, ama?

Ama: Amona gaisorik dago. Zoaz bere etxera.

Txano: Orain?

Ama: Bai, orain.
Eta eraman goxoki hauek. Eta esnea.

Txano: Bai, ama.

Ama: Baina kontuz ! Basoan Benito otsoa dabil.
Zoaz gelditu gabe, eh?

Txano: Bai, ama.

Ama: Axkar-axkar ibili.

Txano: Bai, ama. Ez naiz geldituko bidean.

Ama: Agur. Gero arte.

Txano: Agur, ama.

Kontatzailea: Baso bazterrean ehiztari bat zegoen bere eskopetarekin,
pasiatzen.
Txanogorritxu txistuka doa.

Ehiztaria: Egun on, Txanogorritxu. Nora zoaz bakarrik?

Txano: Amona ikustera.

Ehiztaria: Kontuz basoan ! Otsoa dabil.

Txano: Lasai, ehiztari. Agur.

Ehiztaria: Agur, Txanogorritxu.



Kontatzailea: Txanogorritxu basora heldu zen.

Txano: Zenbat zuhaitz ! Oh, bai lore politak !
Batzuk hartuko ditut amonari emateko.

(Kantari)

Otsoa: Aaaaaaammmmm !
Egun on, neskatxa. Nola duzu izena?

Txano: Txanogorritxu naiz. Eta zu?

Otsoa: Benito, nora zoaz?

Txano: Amonaren etxera.

Otsoa: Zer duzu hor?

Txano: Goxoki batzuk. Eta esnea.

Otsoa: Non bizi da zure amona?

Txano: Han, basoan.

Otsoa: Bakarrik bizi al da?

Txano: Bai, bakar bakarrik.

Otsoa: Bakar bakarrik, eh? Aaaaaaammmmm !!
Txanogorritxu: Txapelketa bat egingo dugu:
Ea korrika zure amonaren etxera nor iristen den aurrena...

Txano: Hori, hori !

Otsoa: Zu joan korrika handik.
Ni hemendik joango naiz... Prest?

Txano: Irabaziko dut !

Otsoa: Bat ! Bi ! Hiru !

Txanogorritxu korrika doa

Otsoa: Jo jo jooo. Txanogorritxuren bidea oso luzea da.
Nere bidea la-bu-rra da... Irabaziko dut.
Eta amona jango dut ! Jo jo joooo !!

Kontatzailea: Otsoak kooorri asko egin zuen, eta azkenean amonaren etxera heldu zen.

Otsoa: Euff ! Nire belaunak !...
Hau izango da amonaren etxea. (*Leihotik begiratzen du*).
Aaaaammmmm ! (*Atea jotzen du*).

Amonaren ahotsa: Nor da?

Otsoa: Txanogorritxu naiz, amona.

Ahotsa: Sartu, sartu, Txanogorritxu.

Amona puntu egiten ari da. Otsoa hurbiltzen ari da.

Otsoa: Aaaaaaaaauuuuuu !

Amona: Aaaaaai !

Jan egiten du.

Otsoa: Aaaaaah ! Bai ona zegoela amona.
Hemen dago, nere sabelean...
Orain amonaren erroa batzuk jantziko ditut.
Eta Txanogorritxu etortzen denean... Aaaaammm !

Ispiluan begiratu eta oheratu egiten da.

Otsoa: Zenbat denbora pasatzen duen Txanogorritxuk !

*Puntu egiten du.
Txanogorritxu abesten dator.*

Otsoa: Hemen dago ! (*Atea jotzen dute*). Nor da?

Txano: Txanogorritxu naiz, amona.

Otsoa: Sartu, sartu, Txanogorritxu.

Txano: Egun on, amona.

Otsoa: Egun on, Txanogorritxu.

Txano: Tori, zuretzat !

Otsoa: Bai lore politak ! Eskerrik asko.

Txano: Eta goxokiak. Eta esnea.

Otsoa: Hor utzi, mahaiaren gainean.
Eta orain etorri neri muxu bat ematera.

Txano: Amona... Bai begi haundiak dituzula !

Otsoa: Zu hobeto ikusteko. Etorri, etorri !

Txano: Amona, bai belarri haundiak dituzula !

Otsoa: Zuri hobeto entzuteko. Etorri, etorri !

Txano: Amona, bai esku haundiak dituzula !

Otsoa: Zuri maite-maite egiteko. Etorri, etorri !

Txano: Aaaaai, amona, bai hortz haundiak dituzula !



Otsoa: Zu hobeto jateko !!

Txanogorritxuk ihes egiten du garraisika.

Txano: Laguntzaaaaaa !!

Ehiztaria: Zer duzu?

Txano: Otsoa !!

Ehiztariak tiroa botatzen du eskopetarekin.

Otsoa: Aaaaaaaaaaiiii !

Txano: Hil da !

Ehiztaria: Zer du sabelean? Ekarri labana. Sabela irekiko diot.

Otsoaren sabela irekitzen dute.

Txano: Amona !!!

Besarkatzen dira, dantzatu eta gero gelditu egiten dira.

Ehiztaria: Amona atera dugu
otsoaren sabeletik,
otsoa hila dago
gaiztoa izateagatik.

Amona: Ehiztari bati esker
bizirik nago oraindik,
mila esker, ehiztari
Txanogorritxuk eta nik.

Txano: Agur, agur, amona
agur, ehiztari zintzoa.
Orain etxera noa
nere amaren ondora.

Ehiztaria: Ederki, ederki.
Beraz, zu etxera, zure amarengana.
Eta ni, ni herrira noa, lagunena bila, otso zahar hau hemendik
eramateko... Agur ! Agur !

Amona: Agur, ehiztari. Eskerrik esko !

Amona: Agur, Txanogorritxu !

Txano: Agur, amona !



Bi ANAK
ETX
SORGINAK



BI ANAIK
ETA SORGINAK

Etxe batean bi anaia bizi ziren.

Zibilio: Ardoa !

Josetxo: Tori.

Zibilio: Sua !

Josetxo: Tori.

Josetxo: Goazen mendira, Zibilio.

Zibilio: Zertara?

Josetxo: Egurra moztera.

Zibilio: Zoaz zu. Ni gero joango naiz.

Josetxo: Agur Zibilio, gero arte.

Zibilio: Bai tontoa dela Josetxo ! Beti lanean !
Ni tabernara noa, ja, ja, ja.

.....

*Mendian Josetxok egur asko moztu zuen
Nekatuta zegoen. Izerdia lehortu zuen. Gero, egarria kentzeko,
ura edan zuen. Baina logaletua zen eta siesta txiki bat egitera
joan zen.
Josetxo lotan zegoen bitartean sorgin bat etorri zen.*

Sorgina: Je, je, je. Laister etorriko dira nire lagunak. Aaaaaaa !!!!!!!

Jose txo: Nor zara zu?

Sorgina: Sorgin bat naiz. Begira, odola dut.

Jose txo: Nik sendatuko dizut zauria.

Jose txok zauria garbitu zion. Gero merkromina igurtzi. Eta zapi batez lotu zion belauna.

Jose txo: Tira, ongi zaude.

Sorgina: Eskerrik asko, eskerrik asko.



Jose txo: Eta zer egiten duzu hemen?

Sorgina: Dantza egitera etorri naiz, je, je, je.

Jose txo: Dantza egitera?

Sorgina: Bai. Ostiraletan, nire lagunekin, hemen festa bat egiten dugu.
Ah, entzun, nire lagunak datoz !

Sorginak: Tzanka tzenke tzankalon
Tzinki tzonko tzakalon
Tzunka tzanka tzenke tzinki tzonko tzunku tzankalon

2. sorgina: Nor da mutil hau?

1. sorgina: Erori egin naiz. Mutil honek sendatu nau.

2. sorgina: Ah ! Ona izan delako emaiozu erregalia bat, je, je, je.

1. sorgina: Bai, hor, zuhaitz horren atzean, diru asko daukagu. Etorri !

2. sorgina: Tori, zuretzat, baina ez inori esan: sekretu bat da. Ssssss !

Josetxo: Lasai ! Sekretu bat da: Ssssss !

2. sorgina: Alde egin baino lehen, dantzatu gurekin. Goazen !

Sorginak: Rau rau rau, saguzarrak jango al hau.
Akelarreko baratzan sorginak ezpatadantzan. luuuuuuuuu !

1. sorgina: Oso mutil ausarta zara. Ez duzu sorginen beldurrik.

Josetxo: Eta zuek oso alaiak zarete.

1. sorgina: Tira, agur eta beste bat arte, je, je, je.

Josetxo: Agur, eta eskerrik asko.

Sorginak: Agur, Josetxo ! Muaaa !
Rau rau rau, saguzarrak

Zibilio: Zer ari zara hemen?

Josetxo: ... atsedean hartzen

Zibilio: Zer duzu hor?

Josetxo: Ezer ez !

Zibilio: Ezer, ez, eh? Ezer ez, eh? Ekarri !!!
Dirua !!!

Josetxo: Sorgin batzuek eman didate.

Zibilio: Eta diru gehiago bai al dute?

Josetxo: Bai, diru asko.

Zibilio: Non dago dirua?

Josetxo: Ez dizut esango. Sekretu bat da.

Zibilio: Non dago dirua !!!

Josetxo: Sekretua da.

Zibilio: Berdin da. Nik aurkituko dut dirua. Alde hemendik, ergela !



Non dago diru hori?

Sorginak: Ardoilla mardoilla kin kuran kin
Zikiro ziria mingainean min
Xera ta mera, kakerin plet
Kirun ta karun, plaxta emaiten

Sorgina : Zer ari zara hemen?

Zibilio: Dirua bilatzen.

Sorgina : Dirua?

Zibilio: Bai. Zuek Josetxori dirua eman diozue.

Sorgina: Bai. Emango dizugu. Baina lehendabizi merkromina pixka bat jarri behar duzu nire belaunean. Tira !

Zibilio: Alde hemendik, atso zikina ! Merkromina? ... Non dago dirua?

Sorgina : Etorri nirekin. Utzi hori. Hor dago.

Zibilio: Non?

Sorgina: Hor ! Hor !

.....

Sorginak: Aaaaaaaaaajjjjjjjj !

Zibilio: Eeeh ! Sokorroooooo !

Sorgina : Makurtu lau oinka !
Hor ! Haraka !

Sorginak: Ja ja jaaaaaaaaaaaaaaaaa !

Sorgina : Orain zoaz etxera. Eta hemendik aurrera ona izan.

Sorginak: Ja ja jaaaaa !
Rau rau rau saguzarrak jango al hau
liiiiiiiiiuuuuuuuu !

HEZKUNTZA SAILA
EUSKARA ZERBITZUA

Argitalpenak

GLOTODIDAKTIKA-LANAK :

1. Hizkuntzen Irakaskuntza : Topikoak eta Metodologiak
2. Hizkuntzen Irakaskuntza : Gramatika Ariketak
3. Hizkuntzen Irakaskuntza : Mailaketa Gramatikala
Metodoen Azterketarako Galdekizuna
4. Hizkuntzen Irakaskuntza : Neurpideak (prestatzen)
5. Hizkuntzen Irakaskuntza : Zenbait Artikulu (prestatzen)
6. Haurrak Euskalduntzen Giñolaren bidez. Kukubiltxo Taldea
7. Euskararen Gaitasun agiria: Programa
8. Euskaltzaindiak Batasunerako eskaini dituen erabakiak.
9. Haurrak euskalduntzen Giñolaren bidez II. Itzaropena M. de Lezea
10. Ipuin zahar eta berriak. Lurdes Iriondo

OHARRAK


A series of 20 horizontal black lines spaced evenly down the page, providing a template for handwriting practice.

OHARRAK

A series of horizontal lines for writing, consisting of 22 evenly spaced lines extending across the width of the page.

OHARRAK

OHARRAK



OHARRAK

A series of horizontal lines for writing, consisting of approximately 25 evenly spaced lines extending across the width of the page.



Ipuiñ zahar eta herriak EK15050394

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA
SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES DEL GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE LA PRESIDENCIA